

INFORMAZIO-ORRIA EBOLA BIRUSAREN GAIXOTASUN (EBG) KASU BAT IZAN DEN ERAIKINEKO BIZILAGUNENTZAT

Ohar honen bidez jakinarazten dizugu zure eraikinean bizi den pertsona bati Ebola birusaren gaixotasuna diagnostikatu zaiola eta ospitalean dagoela.

Ebola infekzio biriko bakan baina larri bat da; gaixotasunaren sintomak dituen pertsona kutsatu baten odola edo gorputzeko jariakinak (listua, hazia, okada,...) ukitzeagatik transmititzen da. Hau da, sintomak dituzten pertsonak soilik transmititu dezakete gaixotasuna eta kontaktu estua behar da horretarako.

Ebola birusa ez da uretatik edota airetik transmititzen.

Azpimarratu behar da birus hau ez dela kutsatzen menturazko kontaktu bategatik; zure osasuna, beraz, ez dago arriskuan. Egoera honetan, zure ohiko bizimodua egiten jarraitu behar duzu (lana, eskola...).

Giroa kutsatzeko arriskua oso txikia bada ere eta jakinik birusak oso labur irauten duela bizirik giroan, zuen guztion segurtasuna areagotzeko, eraikineko eremu erkideak –ataria, eskailerak eta igogailuak– garbitu eta desinfektatu egin dira.

Edozer egoera iruzkindu nahi izatera, ez egon zalantzan kontsulta egiteko. (Zuzenean-en telefonoa: 945016856).

2014ko urriaren 31n onartua

Batzordearen Idazkaritza